



b

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

569. zkia.
XIV. urtea
2006ko apirilaren 28a

Jon Gonzalez, kart gidaria

«Automobilismo eskolarik onena karting-a da»

LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

2006-2007 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

BATXILERGOAK [A eta D]

GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOAK

Etengabeko Jarduna

Badugu ikasteko leku bat zuretzat!

www.lasalle.es/eibarlasalle

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - APIRILAREN 24tik MAIATZAREN 5era

Gabi
jatetxea



- Eguneko menua
- Enpresentzako menua
- Bataioak...

MENU BEREZIA

Aperitiboak
Escalibada antxoekin eta aliba-olioarekin,
Esparrago trigeraz eginiko krema amuarrain
arautzekin eta Ronkaleko gazta

Lupina plantxan zizahoriekin eta albahaka saltsan
edo
Zapoa brotxetan, otarrainxkak eta hirugiharro
azpin-olioarekin garniziaz hornituta

Iberiar txerria babamun burion puruarrekin
eta prioratu saltsa
edo
Azpizuna piperbeltz erara

Marrubizko tarta eta "mascarpone" gazta
edo
"Mendafin" infusioa fruituekin eta Jogurt-ezko izozkia

Prezioa: 28 € (+b.e.z)

Nafarroa enparantza • Tel.: 943 74 12 30



ALAIN ULAZIA

Alaitz,
lehenengo egunean Gazte Asanbladako eta ezker abertzaleko zenbait lagunek zera komentatu zidaten, kalean jartzen dituzten kartelak-eta segituan kentzen dituztela norbaitzuk. Ez dira gainera lau ume moko izango jarritako denak goizetik gauera desagertzen ei dira eta.

Adierazpen askatasuna eta otxokoarto asko darabiltzate euren mingainetan zenbaitzuk, eta gero kaka. Eta ez diezadatela jendeak hormak txukunak nahi dituela esan, sortzen ditugun zabor toneladek izkutatatu ditugun alfonbrapetik ihes egingo bali-gute lez sentiarazi nahian. Argi!

Ia urtebete baino gehiago berba egiten aritu da Gazte Asanblada udaletxearekin, nahiko armonia onean neure ustez, gauzak poliki eta pundamentuz eginez. Orain las-ter emango omen dute ditxosozko giltza Garagartzako eraikin berri hortan Gaztetxe-ari leku egiteko.

Asanbladakoek marrazki lehiaketa antolatuta dute garai berri hau kamiseta koloret-suz janzteko. Gaztetxe martxa ere gaur eguerdian pasa da Euskal Herriko gaztetxe-en ibilbidearen harian. Bestalde, ezker abertzaleak ere ez du lan makala, Euskal Herriaren udaberi leiken honetan lore berriak kimatzen. Nor ostiak ken lezake notizia eder havei bandoa emateko aukera?

Loreak kenduko dizkigute, baina udabe-ria ez...

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

Udaberria loratzen ikustea paregabeko fenomeno da. Aaaatxissss!!!! Baina zuhaitzak ez dira berdin loratzen han eta hemen. Aaaatxissss!!!! Duela hilabete inguru jasotako itxaropen olatuaren ostean, zenbait zuhaitz oraindik ere lorarik gabe ikusi ditut. Aaaatxissss!!!! Han eta hemen jardun dut lorarik gabeko zuhaitzei begira. Ez nuke ezkorra izan nahi baina "loratze-garaia" azkarregi egin nahi dugulakoan nago. Zauri gehiegi daude oraindik zabalik eta pertsona mordoskak dituzte oraindik ere beren eskubideak urraturik. Aaaatxissss!!!! Itxaropenez beteriko berri hori noiz iritsiko zain, horren ostean egin beharrekoak ahaztu ditugulakoan nago. Ez naiz politikaz ari. Are eta gutxiago bata eta bestea-ren artean sortu beharreko mahaiez. Bost axola zaizkit niri horiek! Aaaatxissss!!!!

Alferrikakoak dira hitz potoloz atundu-tako diskurtsoak eta hauteskunde lehi- esandakoak. Bizilagunen arteko zauriak daude konpontzeke. Aaaatxissss!!!! Horrek kezkatzen nau. Aaaatxissss!!!!

Portzierto, aurtego udaberriak demase-ko alergia ekarri dit; pasatzen ari denaren metafora gisa edo... Aaaatxissss!!!! Igual, agian, akaso, apika (sinonimoak buruz ikastearen abantaila)

DAGOKIONARI: Gure etxe azpian orain-
dik ere apirilaren 1eko manifestaziorako deialdi kartel pareta dauzkagu jarrita. Nahi duzuenean pasa zaitezketen hauek kentzera.

«Loreak
kenduko
dizkigute, baina
udaberria ez»

ALAIN

«Zuhaitzak ez
dira berdin
loratzen han
eta hemen»

ALAITZ



ITXAROPENA ONDO DAGO GOSARITARAKO,
BAINA ESKASA DA AFARITARAKO



Francis Bacon

Maiatzak 1: Euskal Herria libre eta sozialista

Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du, beharrezko du erabaki ahal izatea eta bere erabakia askatasunez praktikan jartzea. Konponbide politikorako bidean gaude, bakerantz aurrera egiteko momentu erabakigarrian, alegia. Baina hau posible bihurtuko bada, Euskal Herrian prozesu demokratikoaren bidez besterik ez da izango, herritar guztien eskubideak, hitza eta erabakia errespetaturik eta inolako interferentzia edo hipotekarik gabe. Euskal herritarrak dira ekimen honetako benetako jasotzaile eta protagonistak. Inork ez digu ezer oparitu, aldarrikapen eta mobilizazio sozialaren bidez lortu behar izango dugu. Langileok Euskal Herrian bizi eta lan egiten badugu, bertan erabaki behar dugu.

Herri honetako langileriak, era berean, beste eredu sozial bat aldarrikatzen dugu, elkartasunean oinarrituta eta aberastasuna justuki banatuko duena, aberastasun hori langileok geure lanaz ekoizten dugu eta. Ezetz esaten diegu esplotazioari eta bazterkeriari, prekaritate mota guztiei, genero edo arrazagatiko diskriminazioei, patronalaren nagusikeri eta larderiari, multinazionalen alde egiten duten estatuetako zein autonomiatako gobernuen jarrerari.

Eredu ekonomiko neoliberal honek langileen kontra burutzen dituen eraso guztiei aurre egiteko eta borrokatzeko erabakia beste behin ere berresten dugu: pribatizazioak eta azpikontratak, enpresen deslokalizazioa, lan istripuak, lan

errefomak, dela Frantses estatuko aldi baterako kontratuarena, dela estatu espainoleko hurrengo lan erreforma.

Maiatzaren Lehen honetan euskal langileri osoari dei egiten diegu inoiz baino indartsuago eta inoiz baino ilusio handiagoz Euskal Herri berria eraikitzeko lan egin dezaten, bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko gai izango den eta eredu sozial eta ekonomiko justu, bidezko eta solidarioa eratuko duen Euskal Herria eraiki dezaten.

Aurten maiatzaren 1a LAB-ek eskualdeka burutu duen prekaritate kanpainaren azken mugari bezela planteatzen du.. Beraz datorren MAIATZAREN 1ean ELBARREN eguadiako 12.00etan izango den manifestazioa deialdia luzatzen dizuegu.

Gora Euskal Herriko langileria!
Gora munduko langileria!

LAB - ESKUALDEKO IDAZKARITZA

Dimisioa!

182.2 artikulua aplikatuz, Ezker Abertzaleko bi zinegotziek beraien kargua berreskuratu dezakete. Oso sinplea da. Elgoibarren adibidez, Marga Gurrutxagak eta Jesus Mari Garziak beraien dimisioa aurkeztu behar dute. Gero, beraien atzetik datozen hautagaiek muzin egin toki horiek betetzeari eta horrela, edozein pertsonak hartu ditzake eserleku

horiek, kasu honetan, Iñaki Odriozola eta Iñaki Bengoetxeak, herritarren hitza errespetatuz, beraien dagozkielako. Gainera, artikulua hori Elgoibarren aplikatua izan da, hain zuzen ere, IU-EBko zinegotzi baten aldaketan.

Jadanik badira 98 pertsona (66 kargua hartu ez dutenak eta 32 dimititu dutenak) hautetsi kargu horiek libre utzi ditzutenak. Batzuk berreskuratu ditugu, beste asko ez. Egoera interesgarria, itxaropentsua eta ilusioz bete bizi dugula ezin da ukatu. Normalizazio politikoa eta bakea denon ahotan. Baina helburu horiek lortzeko beharrezkoa da borondatea azaltzea. Eta borondatea keinuekin ikusten da. Ezker Abertzaleak argi eta garbi erakutsi du oztopo guztien gainetik prozesuarekiko borondatea. Erantzuna: atxilotetak, debekuak eta torturak izan dira. ETaren hautua ere oso garbi geratu da. Batzuka aho betetzen dute ilegalizazioaren aurka daudela esanez, baina bahitutako eserlekuetan segitzen dute. Beraz, hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da.

Hemendik dei bat luzatzen diegu Jesus Mari Garzia eta Marga Gurrutxagari bere dimisioa aurkeztu eta Ezker Abertzaleari dagozkion eserlekuak itzultzeko.

PNV-EA itzuli bahitutako eserlekuak, errespetatu elgoibartarren hitza.

ENBIOU HERRI PLATAFORMA

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitate: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETAZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZILEAK** Anton Albeidi, Uxue Albeidi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoa KE, Ururzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESPERAZAHARRA** Gotzon Garateren **IBURUTIK** **INFORMATIKA** Geru **TRADA** 4.470 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

TXALOAK

• **Markesina berriak jarri dituzte autobus geltokietan:** "Azkenean jarri dituzte markesina berriak King-Kong eta Txankakuako autobus geltokietan. Eskerrik asko! Hala ere, Madalako eta Melitongo autobus geltokietan oraindik ez dago markesinarik. Jende gutxiago ibiltzen da, baina euria egiten duenerako markesinak beharrezkoak dira".



GALDERA

• **Noiz kendu behar dute Neinor enpresaren kartela Santa Klarako etxe berrien paretik?:** Aizkorri kaleko bizilagun batek esan digunez, etxe guztiak salduta daude eta kartelak oso gaizki ematen du leku horretan. Neinor enpresara deitu dugu eta esan digutenez, "enpresaren publizitatea egitea da helburua, beste toki askotan jartzen diren kartelen funtzio bera du eta ordaintzen ari gara. Ez dugu inoren kexarik jaso. Bizilagunek deitzen badigute kartela kentzeko eskatuz, aztertuko dugu gaia, baina momentuz ez daukagu kentzeko asmorik".

KEXAK

• **Herrian etxe berri gehiegi egiten ari dira:** "Nola utzi dezake Udalak herrian hainbeste etxe berri eraikitzen? Elgoibarko biztanle kopurua ez da igo azken urteotan, baina etxebizitza kopurua bai. Herrian ez dago ia berdegunerik, dena asfalto eta hormigoia da. Gainera, San Frantzisko, San Bartolome eta Errosario kalean etxe mordoak daude hutsik. Argi dago negozio borobila dela etxeak egitea, baina herrian beste mila gauzatan inbertitu daiteke dirua".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

komikia

Hil da gero... pistolero

Zergatik ez dute "Mendi Ipurdiapurtzailea" bezela itzuli Brokeback Mountain pelikula?



Kokoe 056

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

1983: Udal Euskaltea

Aurreko batean esan genizuen moduan, 83ko irailean jarri zuen martxan Udalak Udal Euskaltea. HABEko ordezkariekin batzar bat izan ondoren, Udalak irakasleen gizarte segurantzaren eta lokalaren ardura hartu zuen, eta HABEk, berriz, irakasleen soldata eta materialarena.

Pilar ikastetxeko geletan hasi ziren eskolak ematen. Eta estreinako irakasleak Joxe Manuel Odriozola eta Aitziber San Roman donostiarrak, eta Agurtzane Epelde eta Itziar Agirregomezkorta elgoibartarrak izan ziren. Baina ikasle kopuruak gora egiten zenez, berehala hartu behar izan zituzten ordutegiak bi irakasle. Egunean 5, 3 eta 2 orduko taldeak osatu ziren lehenengo ikasturtean. Garai hartan langabetu askotxo zegoen gure herrian, baina lan merkatua zabalduz joan den bezala, ikastaro trinko hauek desagertzen joan dira, eta, gaur egun, 2 eta 1'5 orduko taldeak baino ez dira geratzen.

Hasierako bost urteak Pilar ikastetxean eman ondoren, 88-89 ikasturtean anbulatorioa zegoen lokaletara pasa ziren, eta gaur egun ere bertan daude. Hasieran izan zen despistaturen bat baino gehiago. Nahiz eta errotulu edo kartel galanta jarri hura Udal Euskaltea zela esaten zuena, makinatxo bat herritar joaten zen anbulatorioa zelakotan medikuaren txanda hartzera.

Metodologiari dagokionez, makina bat aldaketa izan da Udal Euskaltegian hogeita hiru urteotan. 84an HABEk diseinatutako euskalduntzearen lehen 8 urratsetako programarekin hasi ziren, baina, harrezkero, hamaika aldaketa izan da helduen euskalduntzean gaurko curriculumera iritsi arte. Udal Euskaltegiko arduradunen esanetan, "metodologiaren arloan, ahaleginak egiten dihardugu ikasleak gaitasun komunikatibora bideratzeko".

Datorren astean segituko dugu Udal Euskaltegiko kontuekin.



JOSE LUIS AZPILLAGA

UDAL EUSKALTEGIKO
IRAKASLEA

Sarikon Ekonomia ikaslea zen garaian, duela 28 urte, hasi zen euskara irakasten J. Luis Azpillaga. Gau-eskoletatik Legazpiko Udal Euskaltegira jauzi egin zuen, eta orain dela 22 urte, Elgoibarko Udal Euskaltegian lur hartu zuen. Gustuko lanean ari da azpeitiar hau.

• Asko aldatu al dira orduko eta gaurko lan baldintzak?

Ez, gutxi. Bai, ordea, irakasleen euskara ikasteko motibazioak. Hasi nintzenean langabetu asko genituen ikasle, krisi ekonomiko handia baitzegoen. Klase intentsiboak ematen genizkien, 3 eta 5 ordukoak ere bai. Euskal gizartean integratzeko motibazioa ere oso bizi zegoen garai hartan. Azkenik, orain baino jende gazteagoa geneukan.

• Zer koloretakoa ikusten duzu euskaltegien etorkizuna?

Argi ilunak ikusten ditut. Euskaltegien erronkarik handiena aldatzen ari den gizartera egokitzea izango da. Euskara ikasteko behar berriei (enpresak, gizarte taldeak, etorkinak...) erantzuten asmatu behar dugu. Eta gizartearen euskal-

duntzea aurrera doan neurrian behar berriak sortuko dira. Esaterako, lehen administrazio publikoarekin ibili ginen moduan Osakidetzarekin gabilta orain.

• Zergatik ez da jendea euskara ikastera animatzen?

Arrazoi ugari egon litezke: hizkuntza bat ikasteak denbora eta esfortza eskatzen du, ez da lan erraza; euskara jakitea, tamalez ez da nahitaezkoa gure gizartean moldatzeko; beste hizkuntza batzuk ikastea aukeratzen du jendeak edo beste eginkizun batzuei lehenetsuna eman. Bestalde, gero eta zailagoa da taldeak osatzea, ordutegi arazo larriak dauzkagu. Teknologia berriei; internet eta blog-en bidez, autoikaskuntza eskainiz, saiatzeko gara arazoa konpontzen.



URKIDI AHOLKULARITZA

**KONTABILITATE
LAN
FISKAL**



Kalamua, 12 ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



Malape taberna

Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Eliza»

Elizara juatia obligazua zan, sa-graua! Nik suertia euki naban. Nere aman familixakuak sozialistak ziran, sozialista fiñak. Eta sozialistak ez dake elizakiin zerikusirik, baiña neri gustau egitten jatan elizara juatia. Nik ez naban obligazio bezela hartzen.

Amak hil baino egun batzuk lehenago galdetzen zidan ia ondiokan elizara juaten segitzen naban, eta baietz esan nion, ez zala manixa bat, sinismena zala. Berak ez zaban hola pentsatzen.

Baiña elizaki indar haundixa zakan gu umiak giñanian. Dana pekatua zan.

Konfesatzera juaten giñan, eta ez genduan jakitzen zer kontau ere.

Gaiñera, segun zein apaiz tokatzen zan ere, diferentia zan.

Zeozer kontatzekotan, befi "malos pensamientos" esaten gendun, zer zan jakin gabe. Hori behintzat konfesau egin bihar zan.

Eurak sexu gauziakin lotzen zeben, baiña guk

ez, gaiztakerixaren bat egitteko goguari esaten giñon guk "malos pensamientos".

Gaiñera, apaizak galdetzen zigun ia zenbat, bildurrik gabe esateko: "1000? 2000? 3000?", galdetzen zaban. Ta gu bat edo bi topatzen ibiltzen giñan konfesatzeko. Gero, lagun artian komentatzen gendun bakoitzak esaten zabana.

Ene! Zelako iñuzentzia gendukan! "Inocentes totales"! Gaur egun baiña beranduago espabilatzen giñan.



[GURE BERBAK]

Beste lokailu batzuk

Lokailuekin gabiz azken astietan, eta hárekin segittuko dogu; gaurkuan hautakari batzuk (bestela eta ostian) eta azalpena adierazteko batzuk (zergaittik eze, izan ere, eske) ekarriko doguz hona. Eske da jaso dogunetako bat, baiña esan bihar da, izatekotan, lagunarteko hizkera arduragabian bakarrik erabiltzen dala eta horrela erabili bihar dala; ez dau balixo, nere us-tez, erabilera formal eta jaso baterako. Hona erakusgarri batzuk:

(Bigoiñ basarixa) Gaiñian zela daguan, ez daka defentsarikan. Ostian, bista haundixa dago hamen. Hamendikan horra gaiñera jun ezkeru, Debako playia, itxasua ta dana ikusten da.

(Azokak) Gemikakua, eta gero Elosukua bestia, Pilarika egunian. Ostian, azokara ta, gu gitxitan.

Estartanian pasau genduzen ixa berrogei urte. Gero, bialdu egin zien etxera handik, zahartu egin giñala ta. Da eskerrak horri, bestela nora jun bihar najuan nik?

Ez zan komeni han gelditzerikan; zergaittik eze berriz ere beste disparto bat-edo, neu hantxe nitzala, igual allegauko zan! Ta eskerrak horri oin kotxiak basarixetara, ba ondo. Eske lehen, sasoe baten, medikuak-eta, ba basarri askotara ez zeben jun nahi izeten.

-Migelek biaje edarrak egitten ditte urtero. -Izen ere, kolkua bete diru jakak!

Jesus Mari Makazaga



KANOUSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN


Xixilon, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

ASIER RIESGO

«Atezainok beste psikologia eta ikuspegi bat daukagu zelaian»

Realak bere historiako estraineko Liga Txapelketa irabazi zueneko 25. urteurrena bete da aste honetan. 25 urte beranduago gauza asko aldatu dira Realean eta talde txuri urdina gorriak ikusten ari da aurtengo denboraldi amaieran. Azken partiduetako garaipenei esker jaitzieraren mamua uxatu duela dirudien honetan, Asier Riesgo, talde donostiarreko atezain debarrarekin berba egin dugu.



• **Busti zaitez, maila galduko duten 3 taldeen izenak?**

Malagarena argi xamar dago, Cadiz izan daiteke beste bat, baina zalantzak dauzkat. Hirugarrena esatera ere ez naiz ausartzen, Alaves edo Racing hortxe ibiliko dira. Lau partidaren faltan goizegi da ezer aurreratzeko.

• **Reala salbatuz gero... promesik egitera iritsi al zara?**

Ez. Beheko postuetan sartu ginenean, bertatik ateratzeko gai izango ginela denok sinisten genuen. Momentu txar bat egon zen, 4 puntura geudenekoa, baina orohar gure gaitasunetan konfidantza genuen eta arriskutik aldentzeko nahiko hurbil gaude orain. Halere, talde asko gaude beheko saltsa horretan murgilduta eta edozein deskuidok zuloan sartu eta erreakzionatzeko astirik gabe laga zaitzake.

• **Azken urteetan amildegitik oso gertu dabil Realak. Jokalarion autoestimuan eraginik ba al du?**

Realean daramatzadan bi urteetan, iaz ez horrenbeste, sufritzea tokatu zaigu. Zergatia ez dakit, baina halaxe da.

Beti aipatzen den arren, lehen mailan asko paretatu dira gauzak eta azken urteetan Atletico Madrid, Celta edo Sevilla moduko talde garrantzitsuak jaitsi direla da adibiderik argiena. Konpetibitatea handia da. Bartzelona da gainontzeko taldeengandik maila bat gorago dagoen bakarra.



«Asko zor diet Debako hondartzari»



• Denboraldi berean 3 entrenatzaile. Ez al dira gehiegi?

Gauzak ondo ez doazen sintomarik txarrena da. Klubak soluzioak topatu beharra dauka, ordea, eta badirudi, azken aldaketa onerako izan dela eta pixka bat suspertu gaituela. Emaitzogatik eta jokoan izan dugun hobekuntzogatik, Jose Mari Bakerorena aukera aproposa izan dela dirudi. Gurea moduko egoeran, psikologia oso garrantzitsua da eta arlo horretan Bakerok jokalariongana iristen asmatu duela uste dut.

• Realaren egungo egoera alde batera lagata. Zenbat zor diozu Debako hondartzari futbolari atera izana?

Asko. Hondartzan hasi nintzen futbolean eta asko zor diet 'plaieroei'. Dibertigarria izateaz gain, atezain moduan, nire burua lurrera botatzeko beldurra kentzen lagundu zidan hondartzako hondar bigunak. Askotan futbolean jokatzeko balio ez dutenek, traketsenek, amaitzen dute atezain izaten, baina nik betidanik jokatu izan dut atepean.

• Umetako idoloa?

Arkonada. Atezain izan nahi genuen askoren idoloa izan da. Egungoen artean Iker Casillas nabarmenduko nuke.

• Atezaina eta Riesgo abizena. Zenbat aldiz gogoratu dizute kontu bera?

Riesgo abizena, atezaina, 13 zenbakia eramategatik eta elastiko horia jatzegatik txiste edo zeresan bat baino gehiago atera da, baina ez daukat arazorik. Ez

naiz batere superstiziozoa. Gustatzen zaidan kolorea jantzi... eta kitto! Eskubaloiko atezainei entzuna diet, kolore fuerteek erasotzaileen atentzia erakarri eta nahasten dutela, alegia, ez dutela horrenbeste porteria ikusten. Ez dakit zer puntutaraino izango den eraginkorra, baina gol gutxiago jasotzeko borrokan, denean pentsatu beharra daukagu.

• Atezaina futbol talde bateko jokalaririk berezi eta zoroena dela esan ei da.

Bereziak gara bai, gure postua hala-koxea baita: baloia eskuekin har dezakegu, entrenamenduetan zelaiko jokalarientzatik aparte aritzen gara... gainera, beste psikologia bat dugula uste dut, zelaian beste ikuspegi bat. Azken jokalaria ere bagara eta golak sartzen dizkigutenean guri sartzen dizkigute, gu gara kaltetuenak eta gu jotzen gaituzte errudun askotan. Aldiz, irabazten dugunean zer ikusi gutxi izan dugula dirudi. Gauzak horrela, ezaugarri asko dira berezi egiten gaituztenak.

• Aldagelako txaskarrilloak jakin nahi ditugu.

- Aldagelako kapitaina: Aitor (L. Rekarte)
- Graziosoena: Aitor bera edo Gaizka-
- Metrosexualena: Gorka Larrea.
- Despistatuena: Mikel Alonso.
- Baikorrena: Gaizka (Garitano)
- Euskaldun petoena: Labaka.

• Zer hizkuntza entzuten da aldagelan?

Euskara dexente entzuten da, euskaldun asko baikara, eta normalean euskaraz berba egiten dugu. Atzeritar batzuk ere

saiatzen dira zer edo zer ikasten, batzuk, Stevanoviccek adibidez, interes handia jartzen dute eta beste batzuri, Skoubori, esaterako, ez zaie horrenbeste inporta.

• Imajinatzen al duzu zure burua Euskadiko selekzioarekin mundial batean?

La letxe izango litzateke hori! Demaseko ilusioa egingo lidake.

• Bertatik bertara gehien harritu zaituen jokalaria?

Ronaldo. Onena izan da eta oraindik ere hil ala bizikoa da aurrez aurre daukaguzuean. Portzentaia ikaragarriak ditu.

• Jendearen artean iritzi oso zabaldua da futbolariorik primeran bizi zaretela. Alde txarren bat esaidazu.

Taldea ondo ez dabilenean kalera ateratzea ez da horren erraza. Batzutan kalera ateratzeko gogoia ere kentzen du. Normaltasunez eramaten saiatzen gara, baina askotan ez da erraza, 5 metroero edozeinek burura etortzen zaion lehen gauza esaten baitizu. Nahiz eta jendeak ez txarrera esan, azkenerako norberari ez dio onik egiten horrelako komentarioak bata bestearen atzetik entzuteak.

• Iban Zubiaurreekin erlazio estua duzu. Zer duzu bere kasuaz esateko?

Berarentzat oso gogorra izan dela uste dut. Inguruak gauzak txarto egin eta ondorioak sufritzen ari da: urtebete jokatu gabe egotea. Lehenbaitlehen konpontzea eta datorren urtean futbol zelaietan ikustea desio diet, nire aurka izan beharko badu ere, izatekotan.

[PROTAGONISTA]



Edu Arrillaga

Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarrak Dominikar Errepublikan argazki erakusketa bat jarri du. Apirilaren 20tik dago ikusgai Santo Domingo hiriko Kultur Gune espainiarrean. "Niños de la calle" dauka izenburua, eta bertako umeak dira protagonistak; beraien bizimodua islatzen duten 25 argazkik osatzen dute erakusketa. Urte amaiera aldera Euskal Herrian eta Elgoibarren ikusi ahal izango dugu erakusketa hau. Argazki hauekin liburu bat argitaratzeko asmoa dauka argazkilariak. Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak lagunduko dio testuak eta argazki oinak idazten.

[NOTIZIA]

Azoka txikiko saltzaileei ipinitako salaketa kentzeko eskatu du Elgoibar Bizirik-ek

Elgoibar Bizirik Herri Plataformak azoka txikiko 10 saltzailearen kontra jarritako salaketa, atzera botatzeko eskatu dio Udalari. Elizako arkupeetan postua jartzeagatik ipini zien salaketa Udalak. Euren esanetan, "Parrokiaren baimena geneukan gure postuak elizako arkupeetan jartzeko eta salaketa hau alkatearen mendekua izan da. Iragana ahaztu eta aurrera begira jartzeko garaia da". Bestalde, Sigmako obrak bukatzeaz dauden honetan, Elgoibar Bizirik-ek berriro eskatu nahi dio Udalari bere erabakia aldatzeko eta herritarren nahia errespetatzeko.

Merkatariei inkesta

Lau hilabete pasatu dira ostegunetako azoka Plaza Txikian jarri zutenetik, eta ho-



nen balorazioa egiteko, herriko merkatarien artean inkesta anonimoa egin du Elgoibar Bizirik-ek. Emaizen arabera, merkataria eta ostalariek azoka txikia herri erdigunean kokatzea nahi dute, "herriari bizitza ematen diolako". Negozio txikien egoera txarra dela ondorioztatzen da emaitza hauetan, eta aparkaleku on batek asko lagunduko lukeela diote.

[ZENBAKIA]

55.807

Udalak 55.807 euro erabiliko ditu alde zaharreko piboteak aldatzeko. Autoen sarrera-irteerak kontrolatzeko pibote auto-

matikoak jartzea da helburua. Proektua lehiaketara ateratu zuten eta Telvent Trafico y Transporte S.A. enpresa egingo du obra.

[ARGAZKIA]



Jesus Etxaniz eta Roberto Merino dira Realeko bandera eta ikurrin artean, bigarrenaren etxeko balkoian ageri zaizkigun realzale hauek. Hain zuzen ere, bi ereserki horietxek atera zituzten El Molinon futbol zelaian duela 25 urte, Realak Xixongo Sportingen aurkako partida irabazi eta lehen Liga Txapelketa irabazi zuen egun berean. Partida historikoa izango zena ikustera joateko bi autobus antolatu zituzten eta Xixonera joan ziren herritarrek Zamoraren gola, Realaren historiako golik garrantzitsuenak, zuzenean ikusteko zortea izan

Danobatentzat 2005. urtea ona izan dela azaldu zuten Batzar Orokorrean



Danobatek apirilaren 21ean ospatu zuten urteko Batzar Orokorra. Kontseilu Errektoreak 2005. urteko jardunaldiaren berri eman zuen luze eta zabal. Hauen esanetan, Danobatek bere esportazio adierazleak mantendu egin ditu, produkzioaren ia % 80a atzerriko merkatuetara bideratzen duelarik. Orokorrean, ia zoko urtea ona izan zela aipatu zuten: "2005. urteko jardunaldiak emaitza onak eman ditu, bai produkzio aldetik eta baita enpleguaren mantentzeari dagokionean, nahiz eta sektoreak ez duen gaingiditu oraindik duela hiru urte hasitako krisia".

2006rako aurrikuspen hobea

2005. urte amaieran eskaera garrantzitsuak izan zituztela adierazi zuten, honela, "2006a iazkoa baino hobea izango dela aurrikuspen dugu". Bestalde, inbertsio garrantzitsuak egiten ari dira: Idekoko hantze lanak bide onetik doaz eta udarako bukatzea aurrikuspen dute. Elgoibarko nabeen birmoldaketak ere, inbertsio handia suposatuko du, bertan, Azkoitiko plantan garatzen den produkzioa kokatuko delarik. Aurrera begira, Arriaga poligonoan bertan 10.500m²ko urbanizazioa egiteko plana garatuta daukate.

5.000 speed pilularekin atxilotu dute herritar bat

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, Elgoibarko bizilagun bat atxilotu zuten Azkoitin, herri horretan eta inguruetan droga saltzea egotzita. Bere autoan, poltsa batean, ia 5.000 speed pilula zeramatzala harrapatu zuten 39 urteko U.J.E. elgoibartarra.

Ertzaintzak bizilagun honen etxebizitza eta garajea miatu zituen atxiloketaren ostean, eta ia lau kilo droga, 9.280 euro, nahasgailu industrial bat, droga ebakitzeko substantzia, hiru doitasun-balantza eta droga kopuru txikia zuten 12

poltsatxo aurkitu zituzten. Bestalde, oraindik aztertzeke dauden hainbat dokumentu ere bildu zituzten, eta atxilotuarenak ziren Seat Ibiza eta Citroen ZX bat ere konfiskatu dituzte.

Azkoitian eta Azepeitian ustez gaitupezkoak kontsumitzen eta trafikatzeko direla argitzeko ikerketa hasi zuenetik, susmagarri ziren pertsonekin harremanetan jartzen zen gizonezko bat atzeman zuten Ertzaintzak eta gizona zaintzen hasi ziren. Joan zen astean izan zen atxiloketa.

[MOTZ-MOTZIAN]

Gotzon Garateri omenaldia

1978an Euskal Filologia ikasketak sortu zituen Gotzon Garatek Deustuko Unibertsitatean, euskararen eta euskaldunen haztegi bihurtuko zen esperantzaz. Duela 30 urte Euskal Filologia ikasketak sortzen egindako lanaren ordainetan, omenaldi beroa jasoko du irakasle eta idazleak Deustuko Unibertsitatean bertan, maiatzaren 2an.

Bianara irteera

Jubilatuaren Egoitzak Bianara (Nafarroa) irteera antolatu du maiatzaren 10ean. Goizeko 8:15ean irtengo dira udaletxetik. Bertako eliza eta hainbat monumentu bisitatu ostean, bazkaria egingo dute. Prezioa 25 euro.

1946ko kintoak

1946. urtean jaiotakoek Errioxara egingo dute txangoa maiatzaren 20an. Interesatuak 70 euro sartu beharko dituzte Kutxako kontu honetan maiatzaren 5erako. 2101 0036 61 0121582399. Informazio gehiago 943 740283 (Begoña) telefonon.

1956ko kintoak

1956an jaiotako elgoibartarrek 50. urteurrenko ospakizuna egingo dute ekainaren 3an. Bertan parte hartzeko interesa dutenek, 943 74 45 29 (Antonio) telefonora deitu dezakete.

Merkatu Plazako zozketa

Junkal Agirregomezkorta, Gerardo Otero, eta Arantza Aranbarri izan dira Merkatu Plazako zozketaren irabazleak. 60 euroko txeke bana jaso dute, merkatuan bertan gastatzeko.



1.200 lagun biluztu ziren Donostian Spencer Tunick argazkilariarentzat.

Animatuko al zinateke jende aurrean biluztera?

CONSUELO MEDIAVILLA

Etxekoandrea

65 urte



“Nire adinean ez, eta gazte-agoa banintz ere, ez dut uste. Ez gaude gorputza erakustera ohituta eta lotsa ematen dit. Jaso dugun heziketak eragin handia dauka.”

ZURIÑE KONDE

Ikaslea

10 urte



“Ez! Etxean ere bainugelan bakarrik biluzten naiz. Hondartzan ere ez nuke top-lessik egingo. Hainbeste gorputz biluzik... argazki zatarra aterako zela uste dut.”

ANTONIA VARGAS

Zaintzailea

53 urte



“Ez, baina polita da, hori ere artea da. Gorputz perfektua edukiko banu, akaso erakutsiko nuke, baina erreparoa ematen dit. Dena pekatua dela erakutsi digute.”

XABI TXURRUKA

Arkitektoa

33 urte



“Ni ez, baina koadrilako bi joan ziren eta oso ondo pasatu zuten. Naturalatasunez hartzeko gaia da, baina oraindik ez gaude ohituta eta lotsa ematen digu.”

[BAI ala EZ?]

Eutsiko al diote euskal futbol taldeek 1. mailari?

BAI %20

“Bai, lau jardunaldi falta dira eta nola edo hala hirurak aterako dira zulotik. Hala ere, ez dakit merezi duten! denboraldi kaskarra egin dute. Ia datorrena hobea izaten den.”

EZ %80

“Reala ondo ikusten dut baina Athleticek eta Alavesek lanak edukiko dituzte hortik irtetzen. Alaves ikusten dut kaskarren. Zer nahi dugu ba, Piterman bezalako txotxolo bat buru dela?”

Datorren asterako... **Gasolinaren prezioak errekor historiko guztiak hautsi ditu.**
Izan al duzu kotxea gutxiago erabiltzeko burutaziorik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[GOMENDIOA]

Sinusitisa

Sinusitisa sudurreko sinuen itxiera da, hau da, matrailezurraren barruan eta sudurraren inguruan eta atzean ditugun barrunbeena. Sinu horiek berotu, hezatu eta iragazi egiten dute sudurretik sartzen den airea. Horixe da beren funtzio nagusia baina, batzuetan, aireztapenak huts egiten du eta sudur-barrunbeak itxi egiten dira eta horrek sinusitisa sor dezake. Gehienetan goiko arnasbideen infekzioaren ondoren agertu ohi da sinusitisa. Sudurreko muki-mintz eta sinu paranasalak handitu egiten dira eta muki gehiago sortzen da. Hala ere, muki-jario handia eta sudurreko kongestioa eragiten duten alergiek ere itxi ditza-

kete sudur-zuloak. Sinusitisak sintoma minbera eta deserosoak eragiten ditu.

Sintomak

Sinusitis akutuen sintoma ohikoenak honako hauek dira: buruko mina, mukiak, batzuetan muki zornetsuak eta, inoiz, baita sukarra ere. Sudurretik odola ere botatzen da batzuetan (epistaxisa), eta eztula eta usaimenik eza (hiposmia, usaimena gutxitzea, edo anosmia, usaimena erabat galtzea) ere gertatu ohi da. Sinusitis akutuan mina begi inguruan, betzuloan edo bekokian kokatzen da eta min bizi-bizia ere izaten da zenbaitetan.

Sudur-zuloak libratzeko erremedioa

Sudurreko dutxa edo ur gazi bidezko garbiketa metodo arrunta da sudur-zuloak libratzeko. Ondoren, amasa hobeto hartzen da, sinuen drenajea hobetu egiten da eta muki-mintza deskongestio-natu egiten da. Sudurreko dutxa egiteko ontzi batean ur epela jartzen da, gatza bota eta sudurra uretan sartu. Astiro-astiro amasa hartzen da, ura nola sartzen den sentituz, sudur-zuloetan zehar faringera iritsi dela sentitu arte. Orduan, poliki-poliki ura bota. Prozesua hainbat aldiz errepikatu behar da. Berehala muki ugari ateratzen da, arindu handia hartu eta amasa errazago hartzen da.

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)

Jausoro, 6 behe

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

▶ **MARTHA MELGAR** **BOLIVIA [HEGO AMERIKA]**

«Senideak bisitatzera joan nintzen B eta ez zitzaidan gustatu han aurkitu

BOLIVIAKO SANTA CRUZ HIRIKOA DA MARTHA MELGAR. DUELA LAU URTE UTZI BEHAR IZAN ZUEN BERE JAIO TERRIA. MADRILERA IRITSI ZEN LEHENENGO ETA BERTAN URTEBETEZ EGON OSTEAN, ELGOIBARRERA ETORRI ZEN. LAU SEME-ALABA DITU. HIRU BERAREKIN DAUDE HEMEN, BAINA LAUGARRENA EZIN IZAN DU ORAINDIK EKARRI. BERE NAHIA, FAMILIA GUZTIA HONA EKARTZEA DA.



▶ **Zenbat denbora daramazu Elgoibarren?**

Duela hiru urte iritsi nintzen hona. Aurrez, Madrilen egin nuen urtebete, baina han ez nengoen gustura. Nire izeba bat Elgoibarren zegoen eta berarengana etortzea erabaki nuen.

▶ **Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo, oso gustura nago hemen. Hasieratik hartu naute ondo eta ez dut inolako arazorik izan. Hemengo jendea ez da arrazista. Madrilen jendea askoz gaiztoagoa da, arrazakeria handia dago. Nire alabak eskolan ere izugarri sofritzen zuen, oso gaizki tratatzen zuten.

▶ **Norekin etorri zara?**

Hiru seme-alaba eta ni bizi gara Elgoibarren. Alaba nagusia ezkondua dago eta bere senarrarekin eta seme txikiarekin bizi da beste etxe batean. Ni, semea eta alaba gazteenarekin bizi naiz. Nire seme zaharrena Bolivian dago oraindik, ezin izan dut hona ekarri. Bi aldiz egin dugu saiakera, baina Madrilen behin, eta Italian beste behin, Boliviara bidali zuten. Ez dut etsiko, familia guztia hemen bizitzea da nire ilusioa.

**«Familia guztia
hemen bizitzea da
nire ilusioa»**

▶ **Zer da gehien gustatu zaizuna?**

Herria bera, oso polita dela iruditzen zait. Inguruko herri batzuk ere ezagutzen ditut, eta Donostia eta Bilbo aldean ere izan naiz, baina ez dut turismo askorik egin. Ez daukat denborarik.

▶ **Eta gutxien?**

Larunbat arratsaldetan kalean egoten den giroa ez zait gustatzen. Gazte gehiegi ikusten ditut edanda. Gainera, kalean ere ezin izaten da ibili, behin edalontzi bat jaurti zidaten ia burura. Badakit gazteak direla eta orain

aprobetxatu behar dutela, baina beste modu batean ibili beharko lirateke. Nire semea ere ateratzen da eta hurrengo egunera arte ez da etxeratzen askotan. Kezkatuta egoten naiz eta larunbat askotan ez dut lorik egiten.

► Zertan diharduzu hemen?

Nagusiak zaintzen ditut. Orain gabez egiten dut lan emakume bat zaintzen. Madrilen umeak zaintzen ibili nintzen, baina ez nintzen oso ondo moldatzen, lan handia ematen dute. Nagusiekin oso ondo konpontzen naiz. Oso maitagarria naiz, daukadan onena ematen diet eta nirekin gustura egoten dira. Beraiek ere, beren maitasuna ematen didate. Momentuz izan ditudan lan guztietan oso ondo konpondu naiz.

► Zure seme-alabak joaten al dira eskolara?

Alaba txikia Ikastolan dabil. Oso ondo egiten du euskaraz, eta euskaltegira joateko esaten di, baina ez daukat denborarik. Semea eskolatik bota dute nota txarrak atera eta jarrera desegokia erakutsi delako. Pena handia daukat. Gaztea den bitartean ez badu ikasten, gero ez du ezer egingo. Nik ez nuen ikasteko aukerarik izan. 8 anai-arreba ginen eta ezinezkoa zen. Gutxienez eskola graduatua atera dezan nahi dut. Eta beste alaba lanean dago.

► Nola moldatzen zara gabez lan egin eta familia aurrera ateratzeko?

Ez da erraza. Goizez etxeko lanak egin eta seme-alabentzat jatekoa prestatzen dut. Arratsaldean apur bat deskantsatu eta gabez lanera. Seme-alabak bakarrik uzten ditut gauero.

► Joaten al zara Boliviara senideak bisitatzera?

laz joan nintzen azaroan eta ez zitzaidan batere gustatu han ikusitakoa. Pobrezia handia dago. Nire ahizpa gaixorik dago eta egoera oso tristea da.

► Oso desberdinak al dira Santa Cruz eta Elgoibar?

Bai, ez daukate zerikusirik. Ezagutu arte ezin da imajinatu ere egin hau nolakoa den, niri izugarri gustatu zait Elgoibar.

► Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Elgoibarren, edo Euskal Herrian nire familia guztiarekin. Momentuz ez daukat Boliviara itzultzeko asmorik, ez dut faltan botatzen. Bisitan joango naiz beharbada, baina bizitzeko askoz gehiago gustatzen zait hau. Hasieran jatekoarekin ez nintzen ondo moldatzen, baina ohitu naiz.



BOLIMA

- **Hiriburua:** La Paz
- **Azalera:** 1.098.581 km²
- **Biztanleria:** 8.328.700 (2000)
- **Dentsitatea:** 7,6 km²ko
- **Bizi itxaropena:** 64 urte
- **Erlijioa:** Katolizismoa
- **Hizkuntza:** Espainola, quechua



GAZTIA NAIZ

lotsaGABE

Paul Hernandez



Nola doa ikasturtea?

Ondo, hobeto espero nuen, haina ez doa gaizki.

Batxilergoa bukatu ondoren?

Erizaintza edo medikuntza.

Aberatsa izango bazina...

Gauza mordoa erosiko nuke: etxe handi bat, kotxea, trakurra...

Zein famaturekin egiten duzu amets?

Ez dut famaturekin amets egiten

Amets onenak, lotan ala esna?

Ametsak lo, eta esna fantaseatu egiten dut.

Asteko momenturik onena?

Larunbat arratsaldea.

Zein talde jaitsiko dira bigarren mailara?

Idearik ere ez, ez dut futbola jarraitzen, ez zait gustatzen.

ETAren su-etenearekin etorriko al da bakea?

Lagunduko du, baina lan handia egin behar da oraindik.

Farandulako zein pertsonaia duzu gogokoen?

"Tomate"ko aurkezleak gustatzen zaizkit

Ikusi duzun azken pelikula?

"American History X" asko gustatu zitzaidan.

Zenbat diru daukazu poltsikoan?

Momentu honetan ez daukat ezer. Dirurik gabe nago.

Zenbat da 2+2?

Lau, belfi lau.

Napoleon ala Hitler?

Ez bata eta ez bestea.

Nola dago une honetan zure bihotza?

Taupadaka baina lasai.

Zer izan zen lehenago, arrautza ala oiloa?

Galdera horrek ez dauka erantzunik.

Hil eta gera...

Bizitza hobea egongo da, ziur nago.



biluzik

sexologia txokoa

Eider Arzelus [Sexologia]

Zer da sexualitatea?

Hilabetero bezala hemen natorkizue Biluziketik zertxobait idatzi nahian eta baita agur esatera ere . Gaurkoa nere azken artikulua izango baita, hala ere, esku onean usten zaituztet, ez pentsa! Hemendik pasatu garen eta ondoren etorriko direnen helburua sexualitate mundua zuegana hurbiltzea izan da eta izango da. Egun, oraindik nahi baino ezkuuago dagoen mundu liluragarri honetarako bideak zabaltzea.

• Zer da sexualitatea?

Sexualitatea gurekin batera jaiotzen den zerbait den heinean, pertsona oron bizitzako etapa bakoitzean modu desberdin batera bizi dugu, hori dela-eta, ezin da alde batera utzi eta bakarrik harreman koitalekin lotu beharreko zerbait dela pentsatu, edo genitalekin disfrutatzen den zerbait dela pentsatu, edo gure seme-alabak nerabe izatera iristen direnean gai

honetan kezkatzen hasi momentu horretara arte jaramonik egin ez diogunean.

• Noiz hasi behar da sexualitateaz hitz egiten?

Txiki txikitatik landu beharreko zerbait da eta askotan modu konziente baten landu ez arren, seguru nago etxe askotan landu duzuela edo lantzen duzuela gai hau. Kontutan eduki gauza asko transmititzen ditugula ez bakarrik ahozko hizkunt-

zarekin baizik eta esaten ez dugunarekin eta egiten ditugun gauzekin ere. Hain mundu zabala da! Sentimenduak, errespetua, desioa, komunikazioa, gorputza (bere osotasunean), ... ausartuko zinake zerrenda hau luzatzen? Ia zer ateratzen den!

Besterik ez, Kultur Etxean gaituzue astero zuen laguntzarako.

Ondo bizi eta muxu handi bana!!



EKINTZAK

GAZTE OPORRALDIAK 2006

Gipuzkoako Foru Aldundiak 14tik 17 urtera bitarteko gazteentzat zuzendutako oporraldiak antolatu ditu. Baldintzak: 14tik 17 urtera bitarteko adina duten gazteak, 1989tik 1992ra bitartean jaiotak. Epea: 2006ko apirilaren 20tik 28ra. Informazioa: 943113526 Web orria: <http://www.gipuzkoa.net/oporraldi>

IKASTAROAK

IKASTAROA: 'NOLA AURRE EGIN GATAZKEI'

Hezkide Eskolak antolatuta maiatzaren 15,16,17,18,22,23 eta 24rako 18:00etatik 21:00etara Hezkide Eskolako egoitzan, Donostian. Baldintzak: 21 urte beteta izatea eta taldeekin lan egin dutenentzat: arduradunak, koordinatzaileak edo gai honetan interesa duen pertsonentzat. Epea: maiatzak 19. Informaz.: 943 311474 / 943 311475.

BEKAK

GAZTEEN ELKARTEEN LOKALETAN MATERIAL EDO OBRAK EGITEKO LAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Baldintzak: Udalerri mailako edota udalerri gaitzeko antolakuntza edo hedapena duten gazte elkarte eta entitateek izatea. Ezin-go dira bi laguntza-motak batera jaso. Epea: apirilak 29. Informazioa: 943 112430

LANA

ASTIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA

Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen udalekuearako begiraleen lan-poltsa osotzeko deialdia. Baldintzak: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta Txatxilipurdik antolatuko dituen prestakuntza saioetan parte hartzea (maiatzaren 27an eta 28an). Kontuan hartuko da: Astialdiko begirale tituluduna izatea eta esperientzia. Epea: 2006-05-03. Informaz.: 943 795446 / 943 7711739

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU 1 BERIAINGO UDALEAN

Oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Baldintzak: Eskola Graduata, LH leko titulua edo baliokidea. Epea: maiatzak 3. Informazioa: 948 310288

ZERBITZU ANITZETARAKO 3 LANGILE LANPOSTU BERIAINGO UDALEAN

Oposizio bidez betetzeko deialdia. Baldintzak: Eskola Graduata, LH I edo baliokidea. B-1 motako gidabaimena. Epea: maiatzak 3. Informazioa: 948 310288

IGELTSERO OFIZIAL BAT AZKOITIKO UDALERAKO

Azkoitiko Udalan aldi baterako igeltsero ofizial bat aukeratzeko prozesua. Baldintzak: Eskola graduata. Epea: 2006-05-05 Informazioa: 943 857047

ASTIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA

Ikusi eta Ikasi. S.L.-k uztailan Donostialdean lan egiteko astialdiko begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: 2006-04-30. Informazioa: 943 321570

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461

5 Asteleheneetik ostiralera 16:00-19:00
Asteazkenean Biluzik zerbitzua

ULERTZEKO GARAI BERRIA

berria²

THE PUB IBILTARIA

Oskorriren kontzerturako sarrera bereziak salgai



Uterro legez, Oskorri taldea Herriko Antzokian izango da, The Pub Ibiltariaren kontzertuarekin. Aurten, maiatzaren 5ean, barixakua, izango da, gaueko 22:00etan. The Pub Ibiltariaren 10. urteurrena dela-eta, ekitaldi berezia izango da. Hau da, kantaldi hori telebistaz emateko filmatuko du TVE 1ek, eta 17 egunetan zehar emango dute Telenorten eta Telenavarran. Kontzertu hori ahalik eta apainena izan dadin, musika arloan esanguratsua diren hainbat taldek hartuko dute parte bertan: esaterako, Parrokiako abesbatzak, musika banda, dultzaineroek, trikitilariak, Musika Eskolako ikasleek, Ikastolakoek...

Hortaz, Euskara Batzordeak herritarrei dei egiten die ekitaldi horretan parte har dezaten. Sarrerek prezio berezia izango dute: helduentzat 5 euro, eta 16 urtera arteko haur eta gaztetxoek beriz, 3 euro. Bidenabar, adierazi behar da sarrerak alde zuzenetik eros daitezkeela, Elgoibarko Kultur Etxean, goizez Euskara Sailean eta arratsaldez Gazte Informazio bulegoan.

Gaztetxe Martxaren aldeko kontzertuak gaur iluntzean

"Pausoz pauso autogestioari atea zabaltzen" lemapean iritsi da gaur (hilak 28) goizean Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek antolatu duten Gaztetxe Martxa Elgoibarrera. Maulen abiatu zen martxa apirilaren 21ean eta Iruñean amaituko da maiatzaren 7an. Goizean martxari egin zaion ongi-etorriaren ostean, Elgoibarko Gazte Asanbladak pare bat kontzertu antolatu ditu gaur gauerako. "Napoka Iria" elgoibartarrek eta "Buena Kedadita" taldeek berotuko dute giroa Kultur Etxeko sotoan (22:30). Bestalde, Iruñeara joateko autobusak ere antolatu dituzte. Tiketak ohiko lekuetan eskuratu daitezke. Azkenik, espazio autogestionatuen aldeko sinadurak ematera animatu nahi dituzte herritarrak Gazte Asanbladakoek. Herriko hainbat tabernatan sinatu daiteke.



L'ATLANEF

Pintxoetan sukera zabala

13, Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 26 eta 26 modulua
Tel. 943 740 670

DEKORAZIOA

Korpo eta bormak estaltzea
Zelulen kolokakizko
Laketara: egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUPO TITANEM

JON GONZALEZ KART GIDARIA

«Zorutik horren gertu gidatzean abiadura sentsazioa demasekoa da kart batean»



Abiaduraren arrazoi zinetan darama Jon Gonzalezek. Auto telegidatuekin hasi eta urte batzuk rally eta auto igoeretan eman ostean, kart-ak gidatzen hasi da orain. Ogibidea ere motor munduari lotutakoa du, nola ez, kamioiarekin aritzen baita beharrean.

► **Rally eta auto igoerak laga eta karten mundura pasa zara. Zergatik?**

Denbora eta aurrekontu faltagatik. Batetik, gero eta garestiagoa da auto lasterketetan parte hartzea: izen ematea (240 euro Arratekoan), aseguruak, autoa prestatzeko gastuak, e.a. Lehen, aurrean ibiliz gero, sariekin gastuak berdin zitezkeen zikiera. Orain, poltsikoak gehiago hustu eta tramo gutxiago korritzen ditugu. Bestetik, karten autonomia gehiago ematen dute, rallyetan, laupabost lagun behar baitira: kopilotoa, asistentzia teknikoa, garraioa, e.a. Kartekin sinpleagoa da: zapatuan zirkuituan entrenatu, makina puntuan ipini, domekan lasterketan lehiatu... eta kitto! Neu bakarrik moldatzen naiz. Bide batez, Rafael Uranga, betidanik nire kopilotua izan dena eta animatzen nauen lagun koadrila eskertu nahi ditut.

► **Gaztela Leongo Txapelketan ari zara parte hartzen.**

Bai. Zoritxarrez, aurten ez da Euskadiko Txapelketarik atera eta Gaztela Leongoa izan da gertuen aurkitu dudana.

► **Zer maila topatu duzu bertan?**

Ona. Kantabria, Asturias eta Gaztelako pilotuak daude, eta batzuk, Espainiako Txapelketako aurreko postuetan dabilta. Halere, Bartzelona aldean daude piloturik onenak. Gustatuko litzaidake han edo Espainiako Txapelketako probaren batean probatzea. Azken geratu arren, askoz gehiago ikasi

daitekeela uste dut. Aurtengo helburua ahalik eta gehien ikatea da, eta posible bada, denboraldi ondarrean dudan guztia ematea.

► **Zein da rally eta kart lasterketen arteko ezberdintasun nagusia?**

Rallyetan kronometroa da arerio nagusia. Hemen, erlojuaren kontra aritzeaz gain, aurreratu nahi zaituzten gainerako pilotuak ere kontutan eduki behar dira.

► **Ze ezaugarri ditu zure kartak?**

170 kiloko pisua, 125 c.c, 45 zaldiko potentzia, 6 abiadurako martxa-kutxa... Motorra eta txasisa (Birel etxeokak) italiarrak dira. Karting munduko osagai ia guztiak, hobereak bederen, italiarrak dira. Zirkuituan 110-130 kilometro orduko abiadura har dezake eta azelerazioa demasekoa da (0tik 100 km/o.ara 3 segundutan). Lurretik horren hurbil joateak, gainera, prestazio eta sentsazio guztiak bikoizten ditu. Gorlarako igoeran, esaterako, turismoek baino denbora hobeak egin zituzten kartek, igoerarako prestatutako 15 milioi pezetako M3 batek baino denbora hobeak, alegia.

► **Fernando Alonso kartetan hasi zen.**

Bai, 5 urterekin Euskadiko Txapelketa irabazi zuela uste dut. Neu ere horren gazterik iritsi izan banintz karten mundura! Izan ere, automobilismoaren oinarria dira; rally, 1 formula... guztiarako eskolarik onena eta autoen mantentimendu, puntuan jartze, e.a. ikasteko biderik egokiena.

«125 c.c eta 45 zaldirekin 130 km/o. abiadurara iristen naiz»

HERRIARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Pilotari elgoibartarrek lazkaotarren aurka jokatuko dute Herriarteko Txapelketan

Zenbait urtean parte hartu gabe egon ostean, Herriarteko Pilota Txapelketan jokatzeko taldea osatzea lortu du Elgoibarrek aurten. Gaur, hilak 28, jokatuko da txapelketa prestigioitsu honetako joaneko partida Ikastolako frontoian (21:30). Pilotari elgoibartarrek Lazkaoko pilotariak izango dituzte aurrez aurre lehen kanporaketa honetan. Kadete mailan Arribillagak eta Lizarraldekin osatuko dute bikote elgoibartarra, Jubeniletan, Amizabalaga eta Txurruka izango dira herriko ordezkariak eta nagusien mailan Iriondo eta Loiola arituko dira. Kategoria bakoitzeko garaipenak puntu bat balio du. Lagunak Pilota Eskolatik herriko pilotazale guztiei gonbita luzatu nahi diete herriko pilotariak animatzera joan daitezten. Itzulerako partida astebete beranduago, maiatzaren 7an, jokatuko da Lazkaon. Lehen kanporaketa gaindituz gero, Arrasateko taldearen aurka jokatuko lukete pilotari elgoibartarrek.



Azkoitiako III. Rallysprinta Azkarateko errepide zaharrean



Azkoitiko Herria III. Rallysprinta jokatu da bihar, hilak 29, Azkarateko errepide zaharrean. Lagun Artea eskuderiak antolatutako proban -Euskadiko Rallysprint Txapelketarako puntuagarria- 8,4 km.tako 3 tramotan banatuko dute Azkarateko errepide zaharra. Lehen parte hartzailea 15:00ak inguruan ateratzea espero da eta azkena 19:00ak inguruan. Hortaz, errepidea itxita egongo da zapatu arratsaldean, aipaturiko ordu tartean. Bestalde, datorren astean, maiatzaren 6an, San Migelgo rallysprinta jokatuko da.

Morkaikorekin Nafarroako txokoak ezagutz

Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteera Nafarroara izango da; Uitz, Ireber eta Erasun artean GR-12aren etapa ezezagun, baina aldi berean ederra egiteko asmoa dute. Besteak beste, Ireberreko tontorra (1.203 m.), Otsoloko bailara bakartia eta Nafarroako txoko honetako

belardiak eta pagadiak pasako dituzte bidean. Erasun herritxoan, Retegi II pilotari handia sortu zen herrian amaituko dute txangoa. Astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era eman daiteke izena Morkaikoren egoitzan. Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 0 - Gemika 0 (3. maila)
Gemika 4 - Elgoibar 0 (Jub.)
A. Ondarra 1 - Elgoibar 0 (Kad.)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa

Bergara 8 - Lagunak (Atxo./Arriz) 22 (Jub.)
Aretxabaleta 16 - Lagunak (Arrib./Liz) 22 (Kad.)
Lagunak (Liz./Sal) 22 - Bergara 7 (Kad.)
Lagunak (Ula./Iri) 22 - Aretxabaleta 11 (Nag.)
Lagunak (Ula./Ansola) 19 - Arrasate 22 (Nag.)

ESKUBALOA

Ereintza 23 - Tecnifuelle 21 (Senior mut.)
Bera Bera 18 - Cometa 17 (Jub. nesk.)
Tecnomeca 22 - Gatz Museoa 18 (Kad. mut.)
ANIT Soflan 18 - Bergara 35 (Sen. mut.)
Ereintza 20 - Pagoaga 12 (Kad. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapata, 29

10:30 Elgoibar - Bergara (Neskak F-8)
13:30 Elgoibar - Lagun Onak (Inf. A)
16:30 Elgoibar - Amara (1. erreg.)
18:30 Elgoibar - Aloña Mendi (Neskak)

Domekia, 30

11:00 Elgoibar - Martutene (Kad.)
17:00 Elgoibar - Getxo (Jub.)

Astelehena, 1

11:00 Elgoibar - Mutriku (Aleb.)

ESKU PILOTA Ikastolan

Herriarteko Txapelketa

Barinakua, 28

21:30 Elgoibar - Lazkao (Kad.)
22:15 Elgoibar - Lazkao (Jub.)
23:00 Elgoibar - Lazkao (Nag.)

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapata, 29

13:15 Olasa - Mutriku (Inf. nesk.)
16:00 Umobitza - Corazonistas (Kad. mut.)
17:30 Pneumax - Corazonistas (Jub. mut.)
19:30 Tecnifuelle - Castro (Senior mut.)

Domekia, 30

9:00 Pagoaga - Usurbil (Kad. nesk.)
10:30 Cometa - Pulpo (Jub. nesk.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldeja jantzita, su baja, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **670 251 263**
- ▶ Pisia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, sukalde-jangela, 2 komun, egongela, garajea eta ganbara. **659 80 10 32**
- ▶ Pisia salgai Erosario kalean. 2 logela, egongela, sukaldeja eta komun. 135.230 euro. Adosteko. **646 75 80 91**
- ▶ Pisia salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. **606 71 56 77**
- ▶ Pisia salgai Mendaron. 3 logela, egongela handia, sotoa, atikoa, bi komun. 217m². Guztiz berritua. **609 888 653**
- ▶ Pisia salgai Mendaron. Eguzkitsua, dena kanpora. 3 logela, sukaldeja, bi komun, bi garaje eta trasteleku. **635 20 79 01**

ALOKAIRUA

- ▶ Logela bat hartuko nuke alokairuan. **697 78 52 78**
- ▶ Pisia alokatzen da Pedro Muguruzan. **650 80 91 90**
- ▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. 2 logela. **943 20 30 83**
- ▶ Etxea alokatzen da Pedro Muguruzan. **636 27 72 82 (18:00-21:00)**
- ▶ Etxebizitza alokatzen dut Torrevejan. Hondartzatik 200 metrora. Aste Santu eta udarako. **615 70 71 38**
- ▶ Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukaldeja, egongela, bi komun, 3 logela, 40m²ko terraza. **655 72 3678**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Aterpe behean. **695753699**
- ▶ Garaje marraduna salgai Leku Ederren. **639 05 14 45**
- ▶ Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. **943531648/669916148**
- ▶ Garaje itxia salgai Leku Ederren. 24.000 euro. **678 80 35 35**

[AUTOAK]

- ▶ Ford Focus autoa salgai. TDCI, 115 zaldi, 2003koa. Xenon, TCS, Bristein suspentsioa, 76.000km. **630 946 241**
- ▶ Motorra salgai. Piaggio x8 beltza. Extrak. 9.000km. Beti garajejan. **678 80 35 35**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Erabilitako furgoneta erosiko nuke. **676 929 453**
- ▶ Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilterraza. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Irailgaitza. Prezioa adosteko. **635 73 58 15**
- ▶ Sukaldeja salgai: bitrozeramika, labea eta mepansa. Estrenatu gabe. Oso merke, 180 euro. **647 626 693**
- ▶ Telebista handi bat salgai. **943 74 09 80**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Bi mutil lanerako prest: igeltsero, nagusiak zainduz, kamarero moduan, bserriko lanak... **615 00 83 46**
- Neska lanerako prest. **666 814 916**
- Neska nagusiak zaindu, garbiketa edo kamarero lanak egiteko prest. **667 709 439**
- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularren ematen dira. **943 53 10 54**
- Emakumea lanerako prest: umeak edo nagusiak zainduz, etxeko lanak eginez... **686 578 228**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan, igeltseritzan, lore-zaintzan... **636 762 822 /943 53 18 35**
- Gizona lanerako prest. **678 89 84 29**
- Kamarero moduan lan egiteko prest. Euskaraz dakit. **620 04 94 20**
- Emakumea lanerako prest, egunez edo gauzez. Esperientzia dut. **943 17 28 96**

- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan. Alikatatzen, tabikatzen eta makinaria erabiltzen dakit. **645 70 28 31**
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan edo pintore moduan. **606 612 834**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanerako prest. **676 623 843/943 53 08 03 (Romina)**
- Mutila asteburuetan lan egiteko prest. **686 475 563**

ESKANTZA

- Mutil gaztea behar da. Iturgina edo 1. edo 2. mailako ofiziala. **605 70 52 04**
- Esperientziadun sukaldaria behar da asteburuetarako. **615 72 34 80**
- Esperientziadun kamareroa behar da. **615 72 34 80**
- Kamareroa eta sukalderako laguntzailea behar da. Asteburuetarako. **943 12 12 62**
- Egun erdiz lan egiteko kamareroa behar da. Utzi mezua ondorengo zenbakian: **695736799**
- Eibarko enpresa baterako muntatzaile mekanikoa behar da. LH

- mekanika arloan eta ingelesa menperatzea eskatzen da. **CV. Eibarko 263 postakubxatilara bidali.**
- Tabemarako kamareroa behar da. **615 76 14 63**
- Umea zaindu eta pisua osatzeko emakumea behar da. **666 03 27 15**
- Mutil euskalduna behar da aroztégian lan egiteko. Gida baimena. Esperientziaduna. **943 03 35 66 (CV bidali faxez)**
- Asteburuetan Txuri-Beltz tabemarako kamareroa behar da. **943 74 0228/943 7407 45**
- Kamareroa, neska zein mutil, behar da tabeman lan egiteko. **943 74 16 00**

- Gipuzkoako enpresak inkestatailek behar ditu. **Erref. 162006004849**
- Donostiako enpresak elektrizista eta neumatika irakaslea behar du. **Erref. 162006004556**
- Eibarko enpresak zenbakizko kontroladun makinan programatzailea behar du. **Erref. 162006003015**
- Eibarko enpresak soldadorea behar du. **Erref. 162006005155**
- Arrasateko enpresak informatika teknikaria behar du. **Erref. 162006005129**
- Azpeitiko enpresak mekaniko muntatzailea behar du. **Erref. 162006005080**

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentura deitu: **IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32** telefonora.



- Mutrikuko enpresak arotza behar du. **Erref. 162006005194**
- Debako enpresak CNC tomurako programatzailea behar du. **Erref. 162006004904**

ABISUAK

- Urrezko pultsera galdu nuen apirilaren 20an. Kolore desberdinak ditu: berdea, marroia... **943 74 38 99**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Ane** hilaren 2an 3 urte beteko dituzulako. Familiakoan, bereziki, Irati, Julen eta Lorearen partez.



▶ Zorionak **Nagore** 7 urteko neska handia egin zarelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Eider** lau urte egin dituzulako. Familiakoan partez.



▶ Gaur da zure eguna, zorionak **Ana**, jaso denon partetik muxu handi bana.



▶ Zorionak **Haizari** zure 1. urtebetetzean. Guraso lgor eta Naiararen partez.



▶ Zorionak **Maren** bihar urtetxo bat egingo duzulako. Patxo handi bat familiakoan partez. Ondo pasa!



▶ Zorionak **Nora** 9 urte egin dituzulako. Guraso, Ane, aititxa-amama eta izeba-lehengusinen partez.



▶ Zorionak **Iker** bihar bi urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, amamaren partez.



▶ Zorionak **Julene** hilaren 3an 7 urte egingo dituzulako. Etxekoan, bereziki Ibai, Nerea eta Markelen partez.



▶ Zorionak **Nora** bihar 10 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



▶ Zorionak **Ales** gure mutil txikiak 3 urte handi! Mila kilo zorion eta beste hainbeste besarkada.



▶ Zorionak **Araceli** bihar 11 urte beteko dituzulako. Aiton-amona, guraso eta lagunnen partez.




▶ Zorionak **Aitana** zure 1. urtebetetzean. Aiton-amona eta osaba-izeben partez.



▶ Zorionak mutil haundi apirilaren 24an 5 urte egin zenituelako. Garazi eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Fernando** atzo 24 urte bete zenituelako. Taldekoan eta Veronicaren partez.



▶ Zorionak **Aner** apirilaren 30ean 5 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki, anaia Hodeiren partez.




▶ Zorionak **Kenia** maiatzaren 2an 25 urte beteko dituzulako. Bereziki, Anadelia alabaren partez.




▶ Zorionak **Amaia** gaur 7 urte egin dituzulako. Zorionak kanpeona!



▶ Zorionak **Francisco** eta **Nora** 38 eta 3 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.




▶ Zorionak aititxo **Jose Mari** eta **Eider**! Familiakoan eta bereziki, amatxo, Saray eta Royren partez.



▶ Ahaztu egingo ginelakoan? Ikusten duzuenetz, ez. Zorionak biori, **Marimatrakas**. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Oscar** gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Iñigo** astelehen 6 urte egin zenituelako. Guraso, aititxa-amama eta Pedroren partez.



[OKINDEGIA]



30 igandea DOÑA MERCEDES

1 astelehena EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

- 28 Bidasolo
 29 Etxeberria (Santa Ana)
 30 Etxeberria (Santa Ana)
 1 Etxeberria (Errosario)
 2 Yudego
 3 Zabaleta
 4 Etxeberria (Errosario)
 5 Ibañez

GUARDIA 24 ORDUZ

Bidasolo
 Etxeberria (Santa Ana)
 Etxeberria (Santa Ana)
 Etxeberria (Errosario)

Yudego
 Zabaleta
 Etxeberria (Errosario)
 Ibañez

* Beti dago guardiako farmazia
 Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84



Fco Javier Zubiaurre Arrida
 2006ko martxoak 13

ESKERTZA

*Gurekin egon zara, gurekin zaude
 eta gurekin betirako egongo zara.*

Bere oroimenez meza izango da, astelehenean, hilak 1, eguerdiko
 11:00etan Mendaroko Azpilgoeta elizan.

Mendaroko Klintoak beti gogoan izango zaltugu



Manuel Elorza Iriob
 2002ko apirilak 29

IV. URTEURRENA

*Gurekin egon zara, gurekin zaude
 eta gurekin betirako egongo zara.*

Bere oroimenez urteurreneko meza izango da, astelehenean,
 hilak 1, eguerdiko 11:00etan Mendaroko Azpilgoeta elizan.

Mendaroko Klintoak beti gogoan izango zaltugu



I. URTEURRENA
 2005eko apirilaren 26an, 72 urte zituela hil zen
Antxon Longarte Oiarzabalen
 oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, hilak 30,
 eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza parrokian.
 Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.



[28 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
2 urteik 6 urtera bitarteko
haurrentzat (euria bada, hurrengo
barixakura atzeratuko litzateke
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:30 KONTZERTUAK

"Gaztetxe Martxa" ekimenaren
barruan
Taldeak: "Napoka Iria" (Elgoibar)
"Buena Kedadita"
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Elgoibarko Gazte
Asanblada

[29 ZAPATUA]

14:30 ANAIARTEKO BAZKARIA GALIZA ETXEAN

Bazkide eta senideentzat
Galiza Etxean.

15:00 AZKOITIKO RALLYSPRINT-A

Azkarateko errepide zaharrean

[3 EGUAZTENA]

11:00 SANTA KRUZ MEZA

San Rokeko ermitan
Ondoren, salda eta txorizoa
banatuko dira

[5 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian
2 urteik 6 urtera bitarteko
haurrentzat (euria bada, hurrengo
barixakura atzeratuko litzateke
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

19:30 "DIA DAS LETRAS GALEGAS" JAIEN INAUGURAZIOA

Manuel Lugris Freire jaunaren
omenez
Txupinazoa eta ondoren Galizako
produktu berezien dastatzea Javier
Ferreiro Lugoko pulpeiroaren
eskutik
Aita Agirre plazan

20:00 ACORDES ORKESTRA HANDIAREN EKITALDIA

Aita Agirre plazan

22:00 OSKORRI & THE PUB IBILTARIA IKUSKIZUNA

Herriko Antzokian

22:30 EIBARKO ADUNIA FOLK TALDEAREN EMANALDIA

Aita Agirre plazan

24:00 ACORDES ORKESTRAREN EKITALDIA

Aita Agirre plazan

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Brokeback Mountain»

28, barixakua: 22:15

29, zapatua: 19:30-22:15

30, domekia: 19:30-22:15

1, astelehena: 21:30???

«Aventuras de Sharkboy»

30, domekia: 16:30

«El Castillo Ambulante» (Z.K.)

4, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Volver»

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:15

30, domekia: 17:00-19:30-22:15

1, astelehena: 19:30-22:15

2, martitena: 19:30-22:15

3, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«16 calles»

28, barixakua: 19:30-22:15

29, zapatua: 17:00-19:30-22:15

30, domekia: 17:00-19:30-22:15


1, astelehena: 19:30-22:15

2, martitena: 19:30-22:15

3, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Beokeback Mountain»



Zuzendaria: Ang Lee.

Antzezleak: Heath Ledger, Jake Gyllenhaal,
Ennis (Heath Ledger) eta Jack (Jake Gyllenhaal)
Wioming-eko bi langabetu dira. Joe Aguirreren
arrantxoan lan egiteko eskaria egiten ari
direla ezagutuko dute elkar. Biek ala biek argi
dute etorkizunean nahi dutena; lan finkoa lortu,
ezkondu eta semeak eduki. Lana lortu ostean,
ugazabak Brokeback Mountain paraje zogarri-
rira bidaliko ditu artzain. Bien arteko adiskidetasuna
zena, poliki-poliki, zerbait sakonagoa izatera
iritsiko da han.

«El castillo ambulante» (Z. K.)

Zuzendaria: Hayao Miyazaki.

Marrazki bizidunak

"Chhjiroren bidaia" saritu eta goraiatuaren
zuzendariak, Hayao Miyazaki japoniarrak, bere fan-
tasizko munduan murgilduko gaitu marrazki bizi-
dun harrigarri hauen bitartez. Diana Wynne Jones
idazlearen eleberri batean oinarritu da oraingo-
an artista japoniarra. Bertan, Sophie, kapela den-
dan lan egiten duen 18 urteko neskatxa da pro-
tagonista. Honek Howl izeneko azti gazte eta li-
murtzailea ezagutuko du, baina gauzak ez direla
diruditen modukoak konturatuko da.

Atzera hegira



1965 . urteko erretratu zahar hau **heritar batek** laga digu. Bizkaiko Santa Eufemia mendian aterata dago argazkia, bertako erromeria egunean. Argazkian agertzen den lagun talde hau San Roke eta San Lorentzo auzoko bizilagunek osatzen dute. "Esperanza" autobusa hartuta joaten ziren Santa Eufemiako erromeriara. Giro polita egoten zela kontatu digute. Garai hartan bikote mordoak sortzen ziren erromerietan. Hauetako batzuk ere, ziur ligatu zutela Santa Eufemiako erromerian. Gogora ditzagun zein diren.

Atzean, ezkerretik eskumara: **Ramon Iriondo, Pilar Iriondo, Begoña Odria, Enrike Barrenetxea.**

Erdian, ezkerretik eskumara: **Aniceto Ansola, ezezaguna, Juan Luis Arrizabalaga, Rosa Mari Odria.**

Behean, ezkerretik eskumara: **Julian Odria, Mari Kontxi Ariznabarreta, Jabier Muguruza, Sebastian Gorrotxategi, Juan Leiaristi eta Maria Asun Iriondo ().**



ESKERTZA

2006ko apirilaren 20an hil zen
Manuel Kapanaga Totorikaren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Chevrolet Aveo berria, miretsi ezazu kanpotik eta goza ezazu barrutik



Chevrolet Aveo berria

SARRERARIK GABE

60€ / hilabetean - LEHENENGO URTEAN **120€ / hilabetean** - 100 KUOTETAN

PREBUPURRIANA GASOLINA BARNETAN 5,80% TAE
AVEO 1.4 LS 16V

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 - EIBAR - Tel.: 943 70 08 41
Karabi Industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es



Chevrolet gehiago da.

Finantziak: 5.912.000 € (gutxi goraberritu ondoren), 500000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna). Bizi den: 12000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 12000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 12000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna). Matrikula (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 500000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 500000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna). Matrikula (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 500000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna), 500000 € (lehenengo urteko prestatze gaitasuna).

oskorri & the pub ibiltaria



Elgoibar Udalea



Foru Adundia



Eusko Jaureritza

Maiatzak 5, OSTIRALA
Gaueko 22:00etan
Herriko Antzokian



**Sarrerak aurrez salduko dira
Kultur Etxean
Euskara Sailean goizez eta Gazte
Informazio Bulegoan arratsaldez
Helduek 5 € - Txikiek 3 € (16 urte arte)**

16 ETXEBIZITZA LIBRE TRASTEROAREKIN ELGOIBAR ERDIAN



Kalitatezko etxebizitzak Elgoibar erdian.
Zure bizitza erosotasun guztiekin bizitzeko lekua.
Zeuk egindako etxea, zure nahi eta beharrei egokitua.

Sukia.
Zure etxean zaude.

Planta tipoa
Planoak gure web orrian ikus ditzakezu
www.sukia.com



Fatxada nagusia
San Francisco kalea



San Francisco Kalea



Aurreko bista



SAN FRANCISCO
ELGOIBAR



943 74 44 67

ELGOIBAR